

Arartekoaren 1/2015 Gomendio orokorra, urtarrilaren 20koa.
Euskadin harrera egin zaien haurren eta nerabeen arreta.

I. Aurrekariak

1. *Bat egiten duten inguruabarren multzoa.*

Euskadiko familia-harreraren egoerari buruzko interesa konstante bat izan da erakunde honetan, familia banantzeko neurri horri egindako jarraipena beti haurrak babesteko bigarren mailako gizarte zerbitzuen (lehenago zerbitzu espezializatuak deitzen zirenak) jarraipen orokorraren testuinguruan egin bada ere. Hala ere, 2013ko amaieran, zerbitzu horretan sakontzeko gune espezifiko bat eskaintzeko eskatzen duten inguruabar batzuk daude, bai familia hartzailearentzako laguntzaren ikuspuntutik bai hartutako haurrentzako arreta gainbegiratzearen eta zaintzearen ikuspuntutik. Honakoei buruz ari gara:

- [“Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak”](#) txosten bereziko gomendioen eta, zehazki, gizarte zerbitzuen sistemari (haurrak zaintzekoari) zuzendutako 9. gomendioaren jarraipena; gomendio horrek zera dio: “Instituzionalizazioaren formula alternatiboak potentziatea”.
- Honakoen artean itxurazko kontraesan bat dago: 1) haurrentzako foru-zerbitzuek familia-harreraren eta egoitza-harreraren artatzen diren haurren bolumen eta proportzioari buruz emandako datuak eta 2) [haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak](#) (hemendik aurrera, 3/2005 Legea) beste familia-nukleo batean sartzeari ematen dion lehentasuna, beste baliabide batzuen aurrean, jatorrizko familia banantzea erabaki denean.
- Aurreko urteetan harreraren kudeaketa hizpide zuten zenbait kexa egon dira: bisita-erregimenagatik, familia hartzaileari emandako informazioagatik, egokitzapen-fasean jasotako laguntzagatik edo beste arrazoi batzuegatik.
- Beste autonomia-erkidego batzuetako herriaren defentsa erakundeetatik etorritako informazioak ohartarazi du administrazioak bere lurraldeetan neurri horri ematen dion laguntza narriatu dela¹.
- Haurrak babesteari buruzko legeria eguneratzeko prozesua, oraindik amaitzeke dagoena eta familia-harrerari heltzen diona hobetzeko elementu gisa.

Sakontze horretarako erabakitako **metodologia** honakoez osatuta dago: 1) foru-aldundiei informazio espezifikoa eskatzea 2013ko jarraipen-espeditenteen testuinguruan; 2) harrera-familien elkarteetan iritzia; 3) haurrentzako foru-zerbitzuetan familia-harrerako zerbitzuetako arduradunak diren pertsonekin elkarrizketa gitea.

¹ Ikusi Kataluniako Síndic de Greuges-en [“Informe sobre el seguimiento dels infants acollits en família”](#) txostena edo Herriaren Defentsa Erakundearen 2014ko Koordinazio Jardunaldietako prestatzeko lantegietako ondorioak.

2. Familia-harreraren tipologia eta bestelako oinarrizko informazioak.

*Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen duenaren arabera, herri-administrazio eskudunak babesik gabeko haurrak eta nerabeak babesteko har dezakeen zaintza-formuletako bat da familia-harrera, haien tutoretza gain hartzen duenean. Modalitate horretan, familiako pertsona bati edo familia-nukleo bati ematen dio haurren edo nerabearen zaintza: "berekin eduki, zaindu, elikatu, haren arreta hartu eta heziketa integrala emateko **betebeharrarekin**, ordezeko familia-bizitza bat edo jatorrizkoaren familia osagarri bat ematearren."*².

Familia-harrera familia zabalean (aitona-amonak, izeba-osabak...) edo beste familia batean egin daiteke. Halaber, Kode Zibilaren 173 bis artikulua arabera, soila, iraunkorra edo adopzio aurrekoa izan daiteke:

- Familia-harrera **soila** behin-behinekoa da, bai babesik gabeko egoeraren adierazpena eragin duten kausak aldi baterakoak direla aurreikusi delako, bai babes-neurri egonkorrago bat hartuko delako.
- Familia-harrera **iraunkorra** adingabearen adina edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuta eta adingabe horren familiaren arabera hori komenigarria denean (eta babes-zerbitzuek hori jakinarazten dutenean) gertatzen da. Kasu horretan, herri-erakundeak hala eskaturik, epaileak tutoretzaren ahalmenak esleitzen diezazkieke hartzaileei, horiek errazago bete ditzaten beren erantzukizunak.
- Adopzio aurreko familia-harrera benetan adopzio-prozesu batekin lotuta dago, prozesuan dagoen haurrei buruzko legeriaren eguneratzeak jadanik baloratzen duen moduan.

Familia-harrera orobat **behin-behinekoa** izan daiteke (Kode Zibilaren 173.3 artikulua) gurasoek edo tutoreek baimenik eman ez dutenean eta ebazpen judiziala eman arte itxaroten den bitartean adingabearen intereserako egokiena dela uste bada.

Azkenik, borondatezko familia-harrera (gure errealitatean gehiengoa duena) eta **profesional** gisa egindako familia-harrera bereizten dira. Lehenengoan, familia hartzaileak prestazio ekonomiko bat jasotzen du adingabearen mantenu- eta zaintza-gastu gisa³, eta ez da trebakuntza espezifikorik edo arduraldi eskusiborik eskatzen. Bigarrean, hartzaileek, aipatutako gastuetarako

² 3/2005 Legearen 69. artikulua.

³ Hiru foru-aldundiek harreraren ohiko eta ezohiko gastuetarako diru-kontentsazioak aitortzen dituzte. Hala ere, muntak desberdinak dira lurralde bakoitzean.

Ikusi [Arabako](#), [Bizkaiko](#) eta [Gipuzkoako](#) dekretu arautzaileak.

prestazio ekonomikoa ez ezik soldata edo prestazio bat ere jasotzen dute. Gainera, trebakuntza zehatz bat eta arduraldi eksklusiboa eskatzen zaie.

Familia-harrera Fiskaltzari bidaltzen zaion dokumentu batean idatziz **formalizatuta** geratu behar da. Dokumentu horrek, behintzat, Kode Zibilaren 173.2. artikuluan nahiz 3/2005 Legearen 70. artikuluan xedatutako alderdiak⁴ jaso behar ditu. Gainera, harrerak honako hauen baimena eduki behar du: erakunde publikoarena, haur edo nerabearena 12 urte edo gehiago badauzka, hartuko duen pertsonarena edo pertsonena eta gurasoena edo legezko tutorearena. Horiek aurka egiten badute edo baimenik ematen ez badute, guraso-ahalaz gabetuta egon ezean, epaile batek erabaki beharko du harrera.

Harrera egin ahal izateko, familia hartzaileek egokitzen **baloratuta** egon behar dira, aldeztatik azterketa psikosozial bat eginez⁵. Halaber, haurrak babesteko gizarte zerbitzuen aholkularitza, **orientazioa eta laguntza** jaso behar dituzte⁶. Gainera, gizarte zerbitzu horiek aldizka harrera **gainbegiratu** behar dute *"haurren edo nerabeen beharrezan eta interes gorenaren arabera egiten ari diren zehazte aldera."*⁷.

Haurrak edo nerabeak **entzunak izateko** eta haren iritzia aintzat hartua izateko eskubidea dauka, baina muga jakin batzuekin⁸, aipatutako baimenean, harrera amaitzeko kausetan eta adingabeari buruz *erabakiak hartzeko prozeduretan*⁹ interesdun guztiei entzuteko betebeharrean.

3. Gure intereseko elementu batzuk

- Familia-harrera, dagoen legeria guztiak lehentasunezko zaintza-modalitatetat jotzen duen arren, oraindik ez da horrelakoa, foru-aldundietako haurrak babesteko gizarte zerbitzuek emandako datuen arabera. Are gehiago, familia-harrerara bideratutako haur batzuk familia baten zain daude.
- Familia hartzaileen balorazioa: erabilitako metodologia eta tresnak, balorazioaren desberdintasunak eta antzekotasunak familia zabalean eta beste familia batean, adopzioarako egokitasunaren balorazioari buruzko desberdintasunak, errekurtsioa jartzeko aukerari eta haren egokitasunari buruzko ebazpena ematea, berritzeko prozesuak eta bigarren eskaerak.

⁴ 1) tartean dauden alderdien baimenak; 2) harreraren modalitatea eta aurreikusitako iraupena; 3) alderdi bakoitzaren eskubide eta eginbeharrak (bereziki, familia biologikoaren bisiten aldizkakotasuna); 4) herri-erakundeak egin beharreko jarraipenaren edukia, eta familia hartzaileak jarraipen horretan laguntzeko konpromisoa; 5) hala denean, hartzaileek jaso behar duten konpentsazio ekonomikoa; 6) hartzaileek profesional gisa diharduten edo borondatezko harrera den; 7) herri-erakunde babeslearen txostena.

⁵ 3/2005 Legearen 73. artikulua.

⁶ 3/2005 Legearen 73. artikulua.

⁷ 3/2005 Legearen 74.2. artikulua.

⁸ 12 urte betetzen dituenetik aurrera harrerarako baimenaren kasuan (70.1. artikulua) eta harrera amaitzeko eskatzen denean (72. artikulua). *"Nahikoa ezagumena badu"*, erabakiak hartzeko prozeduren aipamen orokorrangoan (74.3. artikulua).

⁹ 3/2005 Legearen 74.3. artikulua.

- Prestakuntza: tipologia, edukia eta metodologia.
- Egokitzapena: fase horren ezaugarriak eta bertan bai familiari, bai hartutako haur edo nerabeari emandako laguntza.
- Hartutako haur edo nerabeari eta familia hartzaileari egindako jarraipena eta laguntza: erreferentziako profesionalen kopurua eta trebakuntza, familia hartzaileak hartutako adingabeari buruzko erabakietan izan duen partaidetzamaila, familia hartzaileari emandako eta/edo harekin partekatutako informazio-maila eta -mota, haur edo nerabeak entzunak izateko daukan eskubiderako bermeak.
- Emantzipazioa: emantzipaziorako prestaketan eta 18 urte bete eta gero elkarrekin bizitzen jarraitzen den kasuetan jasotako laguntza.
- Profesional gisa egindako harreraren egoera.
- Familia hartzaileen elkarteek familia-harrerako sisteman duten partaidetzamaila.

4. *Familia hartzaileen elkarteen ikuspegia*

Familia hartzaileen elkarteekin¹⁰ (familia horiek guztiak hartutako haur edo nerabeenak ez direnak dira) izandako bilerak elkar ezagutzea erraztu digu eta bidea eman digu zenbait dinamika alderatzeko, bai barrukoak (elkarteak beraienak) bai kanpokoak (foru-zerbitzuekiko elkarlanak). Horrez gain, bukatzeko, partekatzen ditugun eskari batzuk agerian jarri ditu, kasu batzuetan intentsitate-maila desberdinekin; jarraian azalduko ditugu.

- Familiei emandako informazioa. Batzuetan iruditzen zaie adingabeen errealitateari buruzko informazio garrantzitsua ezkututzen dietela: familia berrelkartzeari buruzko iragarpena, adingabearen nahasmendu edo zailtasunen diagnostikoak, etab. Bizkaiaren kasuan, elkarteak kontatu du ez dela nahiko argi uzten harrera hasiera batean aldi baterako neurri bat den arren denboran asko luzatu eta azkenean iraunkor bihurtu daitekeela. Haien iritziz, funtsezko elementu bat da, proiektuan eta familia-dinamikan duen eraginagatik.
- Uste dute familia hartzaileei gutxi entzuten dietela haur edo nerabeei buruzko erabakiak hartu behar direnean, nahiz eta beraiek izan haiekin bizi direnak. Haien aburuz, familia hartzailearen iritzia aintzat hartzea erreferentziako profesionalaren edo kasuko koordinatzailearen irizpidearen menpe dago

Testuinguru honetan, elementu berezi bat da familia biologikoarekiko bisiten maiztasunari eta iraupenari buruzkoa; izan ere, sarritan bat ez datozen iritzia sortzen dira haurrarentzako komenigarritasunari buruz.

¹⁰ Besarka elkartea, Arabakoa; Euskarri elkartea, Bizkaikoa, eta Beroa elkartea, Gipuzkoakoa.



- Garrantzitsuak iruditzen zaizkien kontu batzuetan familiei ez zaie uzten erabaki partikularrak hartzen, adibidez, laguntza psikologikoa eskaintzeari dagokionez. Laguntza hori soilik ematen da jarraipena egiten duten profesionalen txostenetan aitortzen bada horren beharra.
- Batzuetan, bakarrik sentitzen dira. Beren gaitasunekin konpontzen dituzte arazoak eta, zenbat eta gaiagotzat hartuak izan, orduan eta laguntza gutxiago jasotzen dute. Paradoxikoki, hori ez dator bat beste familia batzuek aipatu dutenarekin, familiako bizitzan gehiegi sartzen direlako sentipena baitaukat.
- Denek uste dute familia hartzaileen ekarpena garrantzitsua dela eta, ondorioz, harrerako foru-zerbitzua eta elkarreak elkarlanean aritzea inportantea dela. Sentsibilizatzeko, familiak erakartzeko eta trebatzeko prozedurak horretarako une aproposak izan litezke.
- Haien ustez, haur horiek artatzen dituzten irakasleen eta osasun-langileen sentsibilizazio handiagoa behar da.
- Eta bereziki:
 - Bizkaia: uste dute zain dauden familiak gutxi zaintzen direla. Baloratzen dituztenean, batzuetan aldi luzeak igarotzen dira harrera-eskaintza egiten dieten arte, eta bitartean ez daukate inolako harremanik zerbitzu publikoekin. Laguntza gehiago eskatzen dituzte familia zaurgarrientzat, adibidez guraso bakarrekentzat. Halaber, beste familietan eta familia zabaletan emantzipatzeko laguntzak hedatzeko eskatzen dute.
 - Araba: kontatu dute bigarren balorazio bat egiten dela bigarren harreraren eta hurrengoenen kasuetan, eta ez zaiela beharrezkoa iruditzen.
 - Gipuzkoa: jarraipenean profesionalen txandaketa handia dago, eta horiek oso gazteak dira. Haien ustez, familia hartzailearekin bizitzen jarraitzen dutenean emantzipatzeko antolatuta dagoen sistemak (gizarteratzeko banakako laguntzak) arazoak sortzen ditu beste modu batean lan egiten ez bada.

5. *Haurrentzako foru-zerbitzuetako arduradunekin izandako bilerak.*

Lehenengo aurrekarian adierazi denez, lortutako informazio guztia osatzeko eta egiaztatzeko xedearekin, bilerak adostu ziren harrerako foru-zerbitzuekin.

Arabaren kasuan, topaketak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Haurrentzako Zerbitzuko eta Harrera Arloko arduradunekin egin ziren, eta



Bizkaiaren kasuan, berriz, Gizarte Ekintza Saileko arduradunekin. Bi lurraldeetan, kasuen koordinazioa zerbitzu publikoko profesionaleri dagokie, eta kanpo-erakunde batekin (Agintzari) harrerarako laguntza osoko programa bat dago kontratatuta.

Hala ere, Gipuzkoaren kasuan, Herrera Zerbitzuaren kudeaketa Lauka erakundeari kontratatu zaio eta bertan kokatzen dira erreferentziako profesionalak edo kasuaren koordinatzaileak; hortaz, bilera erakunde horrekin egin zen.

- 5.1. Kudeaketa-ereduak zein diren ere, hiru zerbitzuetatik onartu da ahaleginak gorabehera familia-harrera ez dela lehentasunezko postura heldu legeak aldarrikatzen dituen familia banantzeko neurrien kasuetako zaintza-modalitateetan. Dena den, **itxaron zerrendetarako** azalpena ez da gizarte-erantzun nahikorik edo oro har familiarik ez dagoela; aitzitik, arazoia da beren burua eskaini duten familien profila eta benetan harrerara bideratuta dauden haurren profila ez datozela bat. Horrela, eskaintza ohikoena haur bakar baterako da, eta haurrak 6 urte baino gutxiago eduki behar ditu, familia biologikoak astean gehienez bisita bat egin dezake eta umeak ez du ezgaitasunik izan behar; aldiz, familia baten zain dauden haurrak anai-arreben taldeak dira, 6 urtetik gorakoak eta premia bereziak dituztenak.
- 5.2. Familien **egokitasunaren balorazioari** dagokionez, hiru lurraldeetan talde desberdinek egiten dute eta diferentzia batzuk ditu adopzioarako egokitasunaren balorazioarekin alderatuta. Familia-harrerarako, bereziki azpimarratzen da familia biologiko baten presentzia, harekiko harremanari eutsi behar baitzaio, eta hartzeko erabakiaz hausnartzeko eta egokitasuna baloratzeko prozesuko atal garrantzitsu bat da hori.

Familia zabalen eta beste familien balorazioaren artean badaude zenbait desberdintasun; izan ere, lehenengoaren kasuan haur zehatz batentzako eta batzuentzako familia bat bilatzen da, baina bigarrenean “edozein” umerentzako balorazio bat egiten da. Are gehiago, Bizkaian talde desberdinek egiten dituzte balorazio horiek: familia zabalak (adingabearen babesgabezia) Baloratzeko Zerbitzuak baloratzen ditu, hain zuzen ere haurren babesgabetasun-maila baloratzeko prozesuan familiari buruz jasotako informazio ugari eta esanguratsua dauka-eta; beste familiak, berriz, harrerarako egokitasuna baloratzeko taldeak aztertzen ditu.

Nolanahi ere, denborak desberdinak dira; izan ere, familia zabalen kasuan haurrak harreraren zain daudenean, azkarrago jardun ohi da, alde zuzenetik prestakuntza eskatu gabe (beharbada aldi berean eskatzen da) edo baloratzen hasteko behar den eta eskatzen den dokumentazio guztia eman arte itxaron gabe.



Beste familia batean egokitasuna baloratzeari dagokionez, kasu guztietan jarraituriko prozesuak prestakuntza eta eskaintzaren gogoeta edo hausnarketa uztartzen dituen formula bat dauka —modu berebean uztartzen ez baditu ere—.

Balorazio-prozesuaren amaieran, txosten psikosozial bat egiten da eta “egokia” edo “desegokia” balorazioa ematen da; txosten hori batzorde teknikoetara bidaltzen da, eta horietan behin betiko erabakiak hartzen dira. Nabarmendu behar da ez dela ohikoa beste familia batean txostenak “desegokitasuna” adieraztea; izan ere, gogoeta-hausnarketako prozesuan heldzen da erabaki horretara, eta horrek atzera egitea edo, batzuetan, inguruabar jakin batzuk hobetu edo aldatu arte geroratzea dakar berekin. Familia zabalean ohikoagoa da: han, % 20 inguru “desegokitzat” jotzen dira.

“Egokitasuna” edo “desegokitasuna” balorazioa dakarren txosten horren emaitza ez da administrazio-ebazpen bat kasu guztietan. Praktika desberdina da hiru lurraldeetan:

- Araban, beste familia batean ez da inoiz ebazpenik ematen, “desegokitasunaren” komunikazioa itzultzeko elkarriketaren eta baloratzeko prozesuaren beraren atal bat dela uste baita. Familia zabalean balorazioa “desegokitasuna” denean bakarrik ematen da ebazpena, ados egon ezean errekurtsioa aurkeztu ahal izateko.
- Bizkaian, beti ematen da administrazio-ebazpena, bai familia zabalean bai beste familia batean, balorazioa “egokitasuna” zein “desegokitasuna” izan.
- Gipuzkoan, “desegokitasuna” komunikatu ostean, 10 egun ematen dira alegazioak egiteko; lehenengo balorazioa egiten duen talde berberak aztertzen ditu eta txostenerako gogoetetan sartzen dira. “Desegokitasuna” egonez gero soilik ematen da administrazio-ebazpena (bai familia zabalean bai beste batean).

Ez da ohikoa “desegokitzat” baloratutako familia batek harrera berriro eskatzea, baina, nolana ere, edozein unetan egin lezake (ez dago prebentziozko eperik), balorazioan aintzat hartu ziren aldaketak aipatuz. Familia batzuek “berriro ekin” diete eskaintzei atzera egin ondoren aldi bat igaro ostean.

Azkenik, bigarren edo geroagoko harrerarako eskaintzen kasuetan, balorazioa eguneratu ohi da; izan ere, zenbait elementu aldatu ez diren arren, familiaren sisteman (eta dinamikan) aldaketak egon dira, gutxienez familiak kide bat gehiago daukalako: hartutako lehenengo umea.



5.3. **Prestakuntza** oso eran antzekoan egituratzen da 3 lurraldeetan:

- Aldez aurretiko prestakuntza bat; familia zabalen kasuan baloratu bitartean egin daiteke azkartasun handiagoa erdiesteko.
- Etengabeko prestakuntza bat, familiak haurrak hartuta dituztenean.
- Jarduketak itxaronaldian; aurrez aurreko edo telefono bidezko jarraipenak eta/edo prestakuntza-topaketak izan daitezke, beti ere itxaronaldian laguntzeko, proiektu baten zati bat direla sentiarazteko, herstura txikiagotzeko, informazioa emateko, etab.

5.4. Bikoteak (adingabea-familia) egin ostean, hasiera ematen zaio harrerari, Araban Integrazio Plana eta Bizkaian eta Gipuzkoan **Egokitzapen** Plana (edo fasea) deitzen den horrekin. Plan horren ezaugarria da adingabeak gero eta egonaldi luzeagoak egiten dituela familian, han gaua igaro gabe, eta teknikariek laguntza eta gainbegiratze handiak egiten dituztela, baina maiztasuna gutxituz.

Egokitzapen edo Integrazio Planean parte hartzen duten eragile guztien jarduketak antolatzen dira, eta Bizkaian fase hori foru-arau baten bidez ere aitortzen da.

Kasu gutxitan eten izan da harrera fase horretan eta, hori egin denean, ohikoa da familiak eta profesionalek partekatzen duten erabaki batean oinarritzea.

5.5. Bosgarren aurrekari honen hasieran esan dugunez, Araban eta Bizkaian haurrentzako foru-zerbitzuetako (harrera atal edo arloko) kasuko koordinatzaileak (erreferentziako profesionalak) arduratzen dira harreraren **jarraipenaz**; Gipuzkoan, aldiz, Laukako jarraipen-programako koordinatzaileek egiten dute. Profesional horiek guztiek trebakuntza daukate psikologiaren, gizarte-lanaren eta/edo gizarte-hezkuntzaren esparruetan.

Errepikatzen den familien kexa batek hartutako haurrari eta haren inguruabarrei buruz familiei ematen zaien informazioarekin dauka zerikusia. Hiru zerbitzuetako arduradunek bat egiten dute errealitate baten ordez sentipentzat jotzean; izan ere, daukaten informazio guztia helarazten dute, hirugarrenei (familia biologikoari) buruzko datuak eta esparru judizialean gertatzen dena izan ezik.

Zerbitzuetako arduradunen iritziz, haurrei buruzko erabakiak hartzerakoan familien iritzia aintzat hartzen da, egungo legeak zehazten duenari jarraiki, eta baliteke arauketa berriak protagonismo handiagoa ematea horri. Hala ere, uste dute ohikoa familiarekin beharri buruzko adostasuna lortzea dela (arreta terapeutikoari dagokionez, esate baterako), baina ez dela beti adostasuna erdiesten esku-hartzearen modalitateari edo intentsitateari



dagokienez eta, jakina, kasuko koordinatzaileak “ez badu ikusten”, ez da egiten. Nolanahi ere, Araban familiari erabakien aurretik entzunaldia emateko izapidea formalki sartu dute.

Jarraipen horretan haurrei eta nerabeei familiek inola ere eragotzi gabe entzunak izateko eskubidea bermatuko lieketen uneak eta espazioak badaude ere, aitortu egiten da ziur aski hori harreraren konpondu gabeko arazoetariko bat dela. Egin ohi da, baina gutxitan, eta kasuko koordinatzailearen iritzia menpe dago. Ez dago prozeduran sartuta eta horrek, arazoak daudenean jardun ohi dela kontuan hartuta, ez du bermatzen kasu guztietan entzunak izatea.

Galdetu da ea, Kataluniako Síndic de Greugesek proposatzen duen moduan, erreferentziako bi profesional (bata, familiarena, eta bestea, adingabearena) egonez gero hurrari emandako arretaren jarraipena eta haren eskubideen gozamenaren bermea hobeto babestuta egongo lirartekeen, eta 3 zerbitzuek neurriaren aurka daudela adierazi dute. Haien aburuz, hain zuzen ere haurra edo nerabea erabakien eta gogoeten erdialdean kokatzeko, egokia da profesional bakar batek antolatzea eskuhartze osoa, tartean dauden baliabide eta eragile guztien (familiak barne) benetako “zuzendari” lana eginez. Uste dute irtenbideak batez ere profesional-ratio on batekin, jarraibide zehatzekin (adibidez: gutxienez fiskaltzarako txostena egin behar den bakoitzean —6 hilabete behin—, adingabeari entzun behar zaio) edo prozedurako adingabeari entzuteko une babestuak sartzearekin daukala zerikusia.

Azkenik, profesionalen gehiegizko txandaketaren inguruko kexari dagokionez, egonkortasun-maila handiko plantillak dituzte, baina langileen lan-eskubideek (oporrak, baimenak, bajak, etab.) ez dute ahalbidetzen profesional berbera harreraren iraupen osoan (batzuetan oso luzea baita) egongo dela ziurtatzea.

- 5.6. **Adin-nagusitasunerako** helduera alde aurretik familiarekin eta neska edo mutilarekin prestatzen da, jarraipenaren zati bat baita. Hiru lurraldeetan, erreferentziako profesionalak horietako batean loturak hausteko programa deitzen duten horretan lan egiten du; aipatutako programan, honakoak zehazten dira: non bizi izango den, nola kudeatuko den egon litekeen laguntza ekonomikoa, nola lagundu behar duen familiarekin bizitzen jarraitzen badu, etab. Araban, 18 urte bete ostean familiarekin bizitzen jarraitzen badu, familiak harrerarako xedatutako prestazio ekonomikoak, ohikoak nahiz ezohikoak, jasotzen segitzen du; familiarekin jarraitzen ez badu, *emantzipatzeko laguntzak* eskuratzen ditu (egoitzarako laguntza eta diru-laguntza). Bizkaian, Gizarteratzeko Zerbitzuak xedatzen dituen eta administrazioaren tutoretzapean daudelarik adin-nagusitasunera heltzen diren neska-mutilak eskuratu ditzaketen programen eta zerbitzuen artean, *gizarteratzeko laguntzak* daude; beste familia batean hartuak izan



diren neska-mutil emantzipatuak eskuratu ditzakete, baina ez familia zabalean hartuak izan direnak. Gipuzkoan, emantzipatutako neska-mutilek, familia hartzailearekin bizitzen jarraitu zein ez, [18 urtetik gorako gazteentzako laguntza bereziak](#) eskuratzen dituzte (18 eta 23 urte bitarteko gazteentzat dira).

- 5.7. **Profesional gisa egindako harrera** Gipuzkoan dagoeneko egitate bat da eta orain Bizkaian abian jartzen ari da. Araban “harrera espezializatua” deitzen diote eta helburu berbera dauka, alegia konplexuagoak diren egoerei (anai-arreben taldeak izateagatik, premia bereziak dituzten haurrak izateagatik, etab.) familia-harrera eskaintzea. Hala ere, hartzaileek ez dute ordainsaririk jasotzen haien esku-hartze profesionaltzat jo litekeenaren truke; aitzitik, prestazio ekonomiko bat jasotzen dute, munta handiago batekoa, familia hartzaile gisa. Kasu guztietan –espezializatua eta profesionalizatua–, pertsona hartzaile horiei prestakuntza edo trebakuntza jakin bat eskatzen zaie.
- 5.8. Familia hartzaileen eta harrera-zerbitzu publikoen arteko lankidetzari interesgarria deritzote hiru zerbitzuek, baina errealitatea oso desberdina da lurralde bakoitzean. Gipuzkoan Beroaren partaidetza eta lankidetzara ondo definituta eta sendotuta dago eta gogobetegarria da bi alderdientzat. Araban, aldiz, duela oso gutxi aldaketak egon dira zerbitzuaren konfigurazioan, eta alderdi bakoitzaren eginkizuna berriro definitzeko eskatzen ari dira. Bizkaian ez daukate harremanik Euskarrarekin, baina familia hartzaileek lekukotzekin eta esperientziekin parte hartzen dute prestakuntzaren une batzuetan.

II. Gogoetak

1. [Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak](#) haurrek eta nerabeek zaintzen eta orientatzen dituen familia bat edukitzeko eta handik bananduak ez izateko eskubidea ematen du, haien interes gorena arriskuan jartzen duenean izan ezik. Herri-administrazioek beharrezko laguntza eman beharko diete familia horiei haurrak hazteko eta hezteko beren erantzukizunak behar bezala bete ahal izan ditzaten¹¹. Bestalde, umeak aldi baterako nahiz behin betiko beren familia-inguruneaz gabetuta dauden kasuetan, herri-administrazioek haien babesa eta laguntza berezia bermatzeko eginbeharra daukate¹². Horrez gain, 39. artikulua haien berreskurapen fisiko eta psikologikoa eta haien birgizarteratzea sustatzeko neurri aproposak hartzera hertsatzen ditu. Horrekin bat etorritik, familiaren beraren ordeko edozein baliabidek gurasoek ematen dutenaren analogoa den arreta-, afektu- eta hezkuntza-ingurune bat eskaini beharko dio haur edo nerabeari eta iristen diren inguruabar berezietatik birgaitu behar dute.

¹¹ Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 5. eta 9. artikulua.

¹² Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20. artikulua.

3/2005 Legeak¹³ hitzarmenetik etorritako izaera eta printzipioak jasotzen ditu eta adierazten du familia banantzen denean ordeko neurriek ordeko familia-testuinguruak eman behar dituztela, baita egoitza-harrerako kasuetan ere; hain zuzen, azken horietan baliabideak, lehentasunez, eguneroko bizitza lantzen duten eta familia-sistemaren antzeko dinamikak dituzten “etxe” txikietara bideratu behar dira. Horregatik baieztatu daiteke familia-harrerak lehentasunezko izaera daukala babesik gabe eta administrazioaren tutoretzapean dauden haur eta nerabeen arretan.

Hala eta guztiz ere, familia-harrerak ez du bere betekizunak (bereziki, langileei eta funtzionamenduari buruzkoak) arautzen dituen arau-garapenik eduki, haur eta nerabeen eskubideen benetako bermerako funtsezko kontu bat den arren. Elementu hauek nahitaez egon beharko lukete araudi erregulatzailerik batean: adingabearen interesaren eta entzuna izateko eskubidearen printzipio gidaria, tartean dauden alderdi guztien eskubideak eta eginbeharrak, profesionalen ratioa nahiz trebakuntza eta prozeduraren definizioa, jarduketak, protokoloak eta agiriak barne.

2. [Haurren Eskubideen Batzordearen](#) hitzetan, haurrek entzunak izateko eta haien garrantzia duten erabaki guztietan haien iritzia aintzat hartuak izateko daukaten eskubidea, haien interes gorena kontuan izaterekin batera, elementu iraultzaile bat da (lehenengo nazioarteko tratatu eta adierazpenei dagokienez), haurren eta nerabeen estatus berri bat ematen baitie: eskubideen subjektuaren estatusa.

Hala ere, egiazta daitekeen errealitate bat da aspaldiko praktika eta jarrera askok eta oztopo politiko eta ekonomikoek oraindik eskubide horren betetzea oztopatzen dutela. Aipatutako batzordearen [12. ohar orokorra](#)¹⁴, hain zuzen ere, estatu kideei hitzarmenaren 12. artikulua (entzuna izateko eta haren iritzia aintzat hartuak izateko eskubidea) benetan aplikatzen laguntzeko helburu nagusiarekin egin zen; horretarako, artikulua horren esanahiari eta gobernuentzat, alderdi interesdunentzat, gizarte-erakundeentzat eta oro har gizarteentzat dituen ondorioei buruzko ulermena areagotu nahi zen. Ohar orokor horretan, hauxe jasotzen da: *“(134) Todos los procesos en que sean escuchados y participen un niño o varios niños deben ser:*

- a) *Transparentes e informativos. Se debe dar a los niños información completa, accesible, atenta a la diversidad y apropiada a la edad acerca de su derecho a expresar su opinión libremente y a que su opinión se tenga debidamente en cuenta y acerca del modo en que tendrá lugar esa participación y su alcance, propósito y posible repercusión.*

¹³ Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (horrez gain Kode Zibilean eta Prozedura Zibilaren Legean aldaketak xedatzen dituenak) jasotako oinarriko araudia arautu eta garatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoari Autonomia Estatutuan esleitutako eskumenen arabera.

¹⁴ Haurren Eskubideen Batzordea: 12. Ohar Orokorra (2009). Haurrek entzuna izateko daukan eskubidea. 51. bilkura-aldia. Geneva, 2009.



- b) *Voluntarios. Jamás se debe obligar a los niños a expresar opiniones en contra de su voluntad y se les debe informar de que pueden cesar en su participación en cualquier momento.*
- c) *Respetuosos. Se deben tratar las opiniones de los niños con respeto y siempre se debe dar a los niños oportunidades de iniciar ideas y actividades (...).*
- d) *Pertinentes. Las cuestiones respecto de las cuales los niños tienen derecho a expresar sus opiniones deben tener pertinencia auténtica en sus vidas y permitirles recurrir a sus conocimientos, aptitudes y capacidades. Además, es necesario crear espacios para permitir a los niños destacar y abordar las cuestiones que ellos mismos consideren pertinentes e importantes.*
- e) *Adaptados a los niños. Los ambientes y los métodos de trabajo deben adaptarse a la capacidad de los niños. Se debe poner el tiempo y los recursos necesarios a disposición de los niños para que se preparen en forma apropiada y tengan confianza y oportunidad para aportar sus opiniones. Es necesario considerar el hecho de que los niños necesitarán diferentes niveles de apoyo y formas de participación acordes con su edad y la evolución de sus facultades.*
- f) *Incluyentes. (...) Los niños no constituyen un grupo homogéneo y es necesario que la participación prevea la igualdad de oportunidades para todos (...).*
- g) *Apoyados en la formación. Los adultos necesitan preparación, conocimientos prácticos y apoyo para facilitar efectivamente la participación de los niños (...) con arreglo a la evolución de sus facultades.*
- h) *Seguros y atentos al riesgo. En algunas situaciones, la expresión de opiniones puede implicar riesgos. Los adultos tienen la responsabilidad respecto de los niños con los que trabajan y deben tomar todas las precauciones para reducir a un mínimo el riesgo de que los niños sufran violencia, explotación u otra consecuencia negativa de su participación (...).*
- i) *Responsables. Es esencial el compromiso respecto del seguimiento y la evaluación, Por ejemplo, en toda investigación o proceso consultivo debe informarse a los niños acerca de la forma en que se han interpretado y utilizado sus opiniones y, en caso necesario, darles la oportunidad de rechazar el análisis de las conclusiones e influir en él. Los niños tienen derecho también a recibir una respuesta clara acerca de la forma en que su participación ha influido en un resultado. Cada vez que corresponda debe darse a los niños la oportunidad de participar en los procesos o actividades de seguimiento. (...)"*

Horretatik zerbait badago 3/2005 Legean jasota; izan ere, lege horrek artikulu oso bat (16 artikulua) entzunak izateko eskubideari eskaintzen dio eta honakoa esaten du:



1. *Hurrek eta nerabeek eskubidea dute, nahikoa ezagumen dutenean, esateko dutena entzun dakien, hala familiaren barruan nola administrazio edo epai prozedura orotan, baldin eta prozedura horiekin zerikusi zuzena badute eta prozedura horietan erabakitzen denak beren egoerari edo beren familia edo gizarte inguruneari eragin badiezaioke. Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, zaindu egingo dute, eskubide hori erabiltzerakoan, beti, diskrezioa, intimitatea, segurtasuna, presiorik ez izatea eta egoeraren arabera egokitasuna errespetatu daitezten.*
2. *Bermatu egingo da hurrek eta nerabeek, nahikoa ezagumen dutenean, iritzia beren kabuz edo berek ordezkari izendatutakoen bitartez adierazi ahal izatea; hala ere, ezin denean edo adingabearen intereserako komeni ez denean, haren legezko ordezkarien bitartez jakin ahal izango da haren iritzia –baldin eta legezko ordezkari horiek ez badira alderdi interesatu, eta adingabearen interesen aurka doan interesik ez badute–, edo lanbideagatik edo adingabearekin duten konfiantza bereziarengatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketen pertsonen bitartez.(...)*
3. *Herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, adingabeekin zerikusi zuzena duten prozeduretan haiek ulertzeko moduko hizkuntza eta haien adimen-gaitasunaren arabera egokitutako hizkera erabil dadin zainduko dute.*

Jakin dugun horretan oinarrituta, esan dezakegu hartutako haur eta nerabeen iritzia araudiak zehazten dituen uneetan eta bertan jasotako mugekin entzuten dela eta hartzen dela aintzat (harrerarako baimena ematea gutxienez 12 urte badauzkate eta “erabakiak hartzeko prozesuen testuinguruan”, nahikoa ezagumena badaukate). Dena den, ez da jarraipen-prozeduran sistematikoki sartzen den eta haurra ondo artatzen ari diren ziurtatzeko bidea ematen duen elementu bat, are gutxiago 12 urte baino gutxiagoko haurrei dagokienez. Erakunde honen aburuz, gaur egun badaude harreraren fase guztietan haurren beharrak, interesak, emozioak eta iritzia benetan entzuteko jarrera nahiz bitartekoak eta baliabideak sartzeko aukerak, haien adina edozein dela ere. Hori bai, horrek zera eskatzen du: *“preparación para hacer frente a los prejuicios acerca de la capacidad de los niños y estimular la creación de entornos en que los niños puedan potenciar y demostrar su capacidad. Exige además un compromiso para destinar recursos e impartir capacitación.”*¹⁵

3. Foru-aldundiek emandako datuen arabera, familia banantzeko neurria daukaten eta familia-harreraren dauden adingabeen kopurua egoitza-harrera daudenen kopurua baino txikiagoa izan da tradizionalki. Dena den, egia da proportzioa hobetuz joan dela: 1995ean neurrien % 20 baino gutxiago ziren, eta 2012an

¹⁵ Haurraren Eskubideen Batzordea: 12. Ohar Orokorra. Haurrak entzuna izateko daukan eskubidea (135. puntua).



eta 2013an, berriz, % 45 inguru. Harrera horietatik, % 70 baino gehiago familia zabalean egiten dira.

Horrela, egia da familia-harrerari beste neurriei baino lehentasun handiagoa emateko ahalegina areagotzen ari dela, baina aurrerapena motela da eta kopuruak haurrak babesteko gizarte zerbitzuetan erreferentziatzat jotzen diren Europako beste herrialde batzuenetatik urrun daude.

4. Familia-harreraren fase edo prozesu desberdinei buruzko gogoetak egin baino lehen, erakunde honek familia hartzaile guztien eskuzabaltasuna eta prestutasun ona aitortu eta haien balioa azpimarratu nahi du, bai haiekin lotura afektiboak dituen haur bat hartzen duten familiei bai une horretara arte ezezagunak ziren hurrekin egiten dutenei dagokienez. Familiek ondo dakiten bezala, maitasun- eta borondate-dosi handiak beharrezko elementuak dira, baina ez nahikoak, borondatez sartzen diren prozesu konplexu eta gogor horri aurre egiteko.
5. Familia berriak **erakartzeko** prozesuan aurrerapenak egin izan dira azken urteetan. Horrela, estrategia bakarra komunikabideetan urteroko kanpainak egitea zen lehen, eta orain komunikazio-egintza masibo horrekin batera beste ekimen batzuk egiten dira, informazioaren zabalkundea denboran iraunarazten dutenak, oraindik intentsitate txikiago batekin bada ere: informazioa eta baliabide didaktikoak dituen harrerari buruzko webgune espezifikoak, familia-hartzaileen elkarleen presentzia ikastetxeetan, eskola-kanpaina, etab. Badirudi emaitzek aldaketa horren eraginkortasuna handiagoa dela frogatzen dutela.
6. Familien **egokitasuna baloratzeko** prozesua (aurrekarietan oso modu labur eta eskematikoan deskribatu dugu) ez da zailtasun aipagarriarik izaten ari. Erakunde honi egokia iruditzen zaio adopzioarako egokitasun-prozesutik bereizita egitea eta familia zabalean eta beste familia batean egindako harreraren inguruabarretara moldatzea, haien premiei arreta berezia ematen dien heinean.

Balorazioa **administrazio-ebazpen** batekin amaitzeari dagokionez, eskuarki egiten ez baita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoaren arabera, komenigarria lirudike administrazio-erabaki hori ebazpen batekin ere amaitzeak, pertsona hartzaileentzako berme handiagoen mesedetan (eta, bereziki, aurka egiteko duten eskubidea bermatzeko). *“Ere”* terminoa erabili dugu azpimarratzeko elementu horrek ez lituzkeela ordeztuko itzultzeko elkarrizketa edo balorazioaren emaitzaren komunikazio lasai eta hizketatua, egiten den moduan.

Atal honekin amaitzeko, arrazoizkoa iruditzen zaigu eskaintza berriak baloratzeko prozesua familiaren lehen balorazioaren kopia bat ez izatea, jadanik ezagunak diren elementuak aprobetxatzea eta aldatu direnez berriro



hausnartzea, aldaketon arrazoia familia-sisteman hartutako lehen haurra baino ez bada ere.

7. Harrera-zerbitzuek bezala, uste dugu familiei **prestakuntza** eskaini behar zaiela, haur baten zaintzak eta hezkuntzak berez dakarten zailtasunari ez ezik gurasoengandik bananarazi duten inguruabarrek haur horrengan izan duten eraginari ere aurre egin behar baitiote. Denborari begira prozesu luze bat denez, alde aurretik prestatzeko egituraketa horri egokia deritzogu, baita hartzeko erabakiaz hausnartzeko prozesuarekin, itxaronaldiko prestakuntzarekin eta etengabeko prestakuntzarekin batera ere.

Aldez aurretiko prestakuntzan, badirudi harrera-zerbitzuetan jasotako informaziotik ondoriozta daitekeela gaur egun horrela egiten dela. Hala ere, beharrezkoa da ohartaraztea hasiera batean aldi baterakoak diren harrerak denboran luza daitezkeela, neska-mutilen adin-nagusitasunera arte eta gehiago ere, elementu hori familiaren erabakian hausnartua eta barne hartua izan dadin.

Guri ere garrantzitsua iruditzen zaigu familiei itxaronaldian ondo laguntzea, batzuetan zenbait hilabete luza daiteke-eta. Erabat gomendagarria dirudi denbora horretaz prestakuntza gehiagorako baliatzeak, haien erabakian sakontzeak eta entzunez eta informazio gehiago emanez egon daitekeen herstura murrizteak.

Amaitzeko, eta berariaz “prestakuntza” ez den arren, modu positiboan baloratu dugu familia hartzaileen topaketak egitea, familia hartzaileen elkarteek sustatutakoak alde batera utzita. Nolanahi ere, hori ez da oztopo jarduera hori administrazioa elkarre-sarearekin (geroago aipatuko dugu) elkarlanean aritzeko une bat izan dadin.

8. **Egokitzapen-** edo integrazio-faseak, hasiera on batek daukan garrantzia dela-eta, arreta- eta aholkularitza-eskakizun bereziak ditu. Harrera-zerbitzuentzat honakoek izan behar dute lehentasuna: haur edo nerabeari eta familia hartzaileari entzutea, behar bezala kokatzeko laguntzen duten orientazio- eta aholkularitza-eskariei erantzutea eta, azken finean, herstura murriztea. Harrera-zerbitzuek bereziki tratatu beharko lukete etapa horretako edozein zailtasun edo porrot, arduraz eta hurbiltasunez.
9. Harreraren **jarraipenaren** helburu nagusia da haur edo nerabea ondo artatuta (haren eskubideak eta premiak bermatuta) dagoela ziurtatzea eta, horretarako beharrezko baldintza gisa, familia hartzaileak haren premia material eta emozionalen berri daukala eta horiek bete ditzakeela ziurtatzea.

Horrek jarraipena sakona izatea eta nabarienera edo familia hartzaileak kontaktzen duenera ez mugatzea eskatzen du. Harrera-neurriak egokiena izaten jarraitzen duen ez ezik, familia horrek oraindik haurraren premietarako egokiena izaten jarraitzen duen ere barne hartu beharko du balorazioak.



Era berean, haurrak erreferentziako profesional bat edukitzea eskatzen du; profesional horrek harekin denbora eta elkarrizketak partekatu behar ditu, entzun egin behar dio eta bere iritzia eman behar dizkio. Gaur egun ez dago bermatuta haurrek eta nerabeek beren iritzia pribatuan edo familia hartzaileen begiradatik kanpo adierazi ahal izatea.

Profesionalek jarduera horretarako trebakuntza egokia eduki behar dute. Halaber, adingabeari eta familiari bereziki entzutea, jarraipenak planifikatzea eta haurrarekin esku hartzen duten beste eragile eta profesional batzuekin koordinatzea ahalbidetzen dion jarraipen-kopuru bat eduki behar dute. Horrez gain, egokia dirudi kanpoko gainbegiratzea edukitzeak, bai egindako arretaren kalitatea bermatzeko bai kasuei buruzko laguntza eta aholkularitza emateko.

Erakunde honek ulertu egiten ditu harrera bakoitzeko erreferentziako profesionalaren erabateko egonkortasuna bermatzeko zailtasunak; izan ere, betetzen duten egitekoaren beharrak bizitzako gertakizunekin eta langile gisa dituzten eskubideekin batu behar dira. Nolanahi ere, esan dezakegu komenigarria iruditzen zaigula kasu bakoitzaren esleipenari ahalik eta egonkortasun handiena ematea, profesional desberdinen txandaketa laburrak saihestuz. Era berean, profesionalen bikoteen artean elkarrekin kudeatzeko formulekin lan egiteko aukera azter liteke; horrela, profesional bat ez dagoenean, besteak, kasuaren berri baitauka eta familiak eta adingabeak ezagutzen baitute, gain hartuko luke kasuaren koordinazioa.

Familiak eskatzen duten laguntzak, batzuei intrusiboegia iruditzen bazaie ere, familiaren eta erreferentziako profesionalaren arteko ohiko topaketak, kasuaren bilakaerari buruzko informazioa eta kontsultarako eta orientatorako eskuragarritasuna ekarri behar du berekin. Bizkaiko zerbitzuko "*Familia harrerarako gida*" edo Gipuzkoan sustatutako familien topaketa ere eginkizun horretarako praktika interesgarriak dira erakunde honen aburuz.

Jarduketa honetan entzun eta jakin dugun horretatik ez dugu ondorioztatu familia hartzaileen iritzia kontuan hartzen ez denik, baina baliteke erabakiak hartzean presentzia handiagoa eduki ahal izatea, hurrei buruzko legeria eguneratzeko aurreproiektuan antza adierazten den bezala. Bitartean, praktika on bat izan daiteke familiarentzako entzunaldi-izapidea formalki xedatzea, Arabako zerbitzuak egiten duen moduan.

10. Tutoretzapeko neska-mutilen **emantzipazioaren** unea bereziki zaugarria da, jarduketa honetan eta beste batzuetan baieztatu dugunez. Horrela, funtsezkoa da familiarekin eta mutil edo neskarekin emantzipazioa prestatzea eta, horren borondatean oinarrituta, hori gauzatzeko edukiko dituen bitartekoak xedatu eta antolatzea. Horrekin bat etorritik, emantzipatzen laguntzeko baliabide horiek aukerak benetan ahalbidetzeko adina sendoak izan beharko dute.





Legez heldua denez eta haren autonomia-prozesuan ondorio positiboak eduki ditzakeenez, egokiago irudituko litzazuke egon litezkeen laguntza tekniko eta ekonomiko guztien titularra gazte emantzipatua izatea, familia hartzailearekin (edozein familia hartzaile: familia zabala edo beste familia bat) bizitzen jarraitu zein ez. Familia hartzailearentzako laguntza ekonomikoa, edozein kasutan, positiboa da gaztea zeharka haren garapenerako beharrezkoak diren elementuez hornitzen jarraitzen duelako. Hala ere, gure aburuz, familiaren eta gaztearen imajinarioan “adingabe” estatusari eusteko ondorioa eduki dezake eta neska-mutil horien inguruabarretan berehalakoagoa izango dela aurreikus daitekeen bizitza autonomo baterako prestaketa moteldu dezake.

Gainera, adin-nagusitasunaren osteko bizitza autonomorako aurrerapenaren etapa horrek eta diru-laguntzak horiek, gazteek kudeatzen ikasi behar baitute, laguntza bat eskatzen dute, 18 urte bete arte zaindu dituen administrazioaren jatorrizko erantzukizunaren arabera. Laguntza hori kasu guztietan eman beharko da, familia batekin bizitzearen edo ez bizitzearen arabera modu desberdinetan antolatzen bada ere.

11. 3/2005 Legearen 107. artikulua xedatzen du familia integraziorako erakunde laguntzaileak direla “arriskuan edo babesgabezia dauden haurrak eta nerabeak babesteko esparruan aritzen direnak”. Halaber, ezartzen du erakunde laguntzaile izateko gaituak izan daitezkeela, baldin eta baimen, erregistro, ikuskaritza eta homologazioari buruz erregelamenduak ezarritako eskakizunak betetzen badituzte. Alderdi horretan ere ez da gerora arau-garapenik egon, eta, antza, legegileak ez zuen ulertzen erakunde horien baimen, erregistro, ikuskaritza eta homologazioa ordurako martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak —Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko denak— agintzen zituela, nahiz eta zerbitzu horiek argi eta garbi gizarte zerbitzuen sisteman kokatuta egon. Egiazki, dekretu hori *Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legea* garatzeko egin zen. Hala ere, haren zioen azalpenean honakoa irakur daiteke: “....”.

Nola edo hala, ezinbestekoa da babesgabeko umeentzako gizarte zerbitzuak emateko punturen batean parte hartzen duten erakundeek haien esku-hartzearen kalitatea bermatzen duten kontrol-neurri horiek edukitzea. Beraz, bai 3/2005 Legearen garapenaren testuinguruan bai [Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari](#) dagokionez egiteke dagoen arau-garapenaren zati gisa, babesgabeko umeentzako gizarte zerbitzuen erakunde laguntzaileen arauketari heldu behar zaio.

12. Azkenik, nabarmendu nahi dugu beren familia-inguruneaz gabetuta dauden haurren beharrak zaintza eta mantenurako baliabideen horniketaz haraindi doazela. Familia-loturen galera edo ahultzeak, ingurune berri baten ezegonkortasunarekin eta nahasmenduarekin batera, haien garapen fisiko, intelektual eta emozionalari eragiten diote, profesionalek eta familia hartzaileek ondo dakiten moduan. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen hartutako haur eta



nerabeekin harremanetan dauden beste hezkuntza- eta osasun-profesional batzuekin, eta egokia litzateke horiekin sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduketak egitea.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako gomendio hau egin du:

GOMENDIO OROKORRA

1) **Foru-aldundietako** sail eskudunei, babesik gabeko haurrentzako gizarte zerbitzuen arloan eskumena daukatenei:

- Familia-harrera beren familiarekin hazi ezin diren haurrak eta nerabeak hezteko baliabide egokiena da. Halaber, haren lehentasunezko izaera Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean eta aplikatu beharreko euskal araudian aitortuta dago. Dena den, errealitatea ez dator bat lehentasunezko izaera horrekin. Beraz, familia-harreraren aldeko apustu irmoago bat eskatu beharko litzateke, atzerapenik gabe, haurren babesean erreferentziatzat jotzen diren Europako herrialdeen ildotik. Horrek egoitza-harrerari dagokionez baliabideak eta aurrekontuak aldatzea dakar, orain arte garatutako familia-harreraren alderdi guztiak indartzeko eta bereziki batzuk, adibidez profesional gisa egindako familia-harrera, sustatzeko.
- Haurrek eta nerabeek entzunak izateko daukaten eskubidea bereziki garrantzitsua da harreraren jarraipenean, haien premiak eta eskubideak behar bezala artatzen direla bermatuta egoteko. Aplikatu beharreko araudian ezarritako oinarrizko gauzak kontuan hartzen diren arren, erakunde honek iritziz, haurrek entzunak izateko daukaten eskubidea orain arte legez xedatutakoaz haraindi doa eta haur guztiak, adin eta izaera guztietakoak, une gehiagotan eta berme gehiagorekin aintzat hartzea eskatzen du.

Beherago proposatu den arau erregulatzailerik egin arte itxaron gabe (arau horrek, nolahi ere, jaso eta zehaztu beharko luke nola gauzatuko den eskubide hori ume guztientzat), erakunde honek uste du badagoela aurrera egiteko aukerarik, adibidez honako hauek: haur eta nerabe horiekin esku hartzen duten profesional guztiek entzuteko jarrera edukitzea; prozeduran pribatuan, familien iritzien edo balorazioen eragozpenik gabe, entzuteko guneak (fisikoak eta denborazkoak) zehaztea; eta profesionalak trebatzea eta prestatzea, lan-giroak eta -metodoak umeen adinetara, ahalmenetara eta gaitasunetara egokitzeko.



- Komenigarria dirudi hartzaile izan daitezkeen familien egokitasuna baloratzeko prozesua balorazioaren emaitza arrazoitua jasotzen duen administrazio-ebazpen batekin amaitzeak. Kasu guztietan eta familia guztietan, hau da, bai familia zabalean bai beste familia batean, eta balorazioa “egokitasuna” zein “egokitasunik ez” denean. Agiri hori existitu eta eman arren, horrek ez luke prozesuaren emaitzaren komunikazio hizketatua ordeztu behar, praktika horiek egokiak baitira.
- Familia hartzaileen (gehienak gaur egun boluntarioak baitira) eskariak eta errekerimenduak kontuan hartuz, honako hauek desiragarriak izango lirateke. 1) informazio gehiago ematea, eskuragarri dagoen neurrian; 2) jarraipenerako (laguntza) irizpideak parekatzea eta erreferentziako profesionalen egonkortasuna areagotzea; 3) haurrari edo nerabeari buruzko erabakietan presentzia handiagoa egotea, haurrei buruzko legeria berriak xedatzen duenaren ildotik, eta, bitartean, beste ekimen batzuk bideratzea, esate baterako Araban dagoen aurretiko entzunaldi-izapidea; 4) esperientziak partekatzeko gune gehiago prestatzea, hala nola familien topaketak, neska-mutilen taldeak, etab.; 5) munta ekonomikoak parekatzea, hiru lurralde historikoetako *bizi-kostua* antzekoa baita.
- Adin-nagusitasunerako helduera zaugarritasun goreneko une bat da. Hala, hurbiltasunez eta profesionaltasunez prestatu behar da, neska-mutilei beren garapen eta autonomia pertsonaleko prozesuan bermekin aurrera egiteko aukera errealak eskainiz. Bestalde, gehienetan, familian hartutako neska-mutilen emantzipazioaren errealitatea da une horretara arte elkarrekin bizitzen egon badira horrela segitzea. Horrenbestez, hauxe egin behar da:
 - Emantzipaziorako prestatzeko fase, prozesu edo plan bat formalki xedatzea. Bertan, neskarekin edo mutilarekin hitz eginda eta familiaren egoera eta eskaintza aintzat hartuta, adin-nagusitasunaren osteko etapa planifikatu behar da, epe labur eta ertainean, eta agiri batean alderdiek hartutako konpromisoak jaso behar dira.
 - Nerabeen eta familia hartzaileen erabaki askea ahalbidetzen duten emantzipaziorako baliabideak antolatzea, hautatzen duten aukera edozein dela ere neska-mutilen eskubideak modu berean bermatuta egongo direla ziurtatuz.
 - Gazteak izatea helduaroan laguntzeko eta emantzipatzeko laguntzen titularrak, familia hartzaileen bidezko zeharkako laguntzei dagokienez lehentasuna duen formula gisa.
 - Helduarora igarotzen laguntzeko asmoari hobeto erantzuten dioten gailu eta zerbitzuetatik neska-mutil emantzipatu horientzako laguntza profesionala ezartzea, familia hartzailearekin bizitzen jarraitu zein ez.



- Gizarte- eta elkarte-sareak eskuarki politika publikoetan eta bereziki gizarte zerbitzuetan parte hartzea, horrek administrazioaren ekintza osatzen eta aberasten baitu babesgabeko haur eta nerabeen premiei arretarik onena eskaintzeko helburuan. Ekarpenen balioa eta alderdi bakoitzak bete behar duen zeregina identifikatzea, lankidetzeta-formula aberasgarriak erdiesteko.

2) Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

- Familia-harreran dauden haurren eta nerabeen eskubideak hobeto bermatuta egongo lirateke familia-harrerari buruzko arauketa espezifikoko bat egongo balitz. Honakoak dira aipatutako araudian xedatu beharko liratekeen elementuak: adingabearen interes gorena eta entzuna izateko eskubidea (eta haren iritzia aintzat hartua izateko eskubidea) kontuan izatea; tartean dauden alderdien eskubideak eta eginbeharrak; erreferentziako profesionalen ratioak eta trebakuntza; jarraipen egokirako bisiten eta harremanen maiztasuna; prozedurak, protokoloak eta dokumentazioa.
- Errealitate bat da erakunde pribatuek familia-harrerarako euskal zerbitzuetan esku hartzen dutela, herri-administrazio arduradunaren kontrolpean. Zerbitzu horien prestazioaren adjudikazioa sektore publikoan kontratatzeko legeriaren esparruan adjudikatu da, eta betekizun material eta funtzionalak baldintza teknikoan agirian ezarritakoak eta eskatutakoak dira. Dena den, esleitutako eginkizunak garrantzitsuak direnez, komenigarria litzateke baimen-, erregistro- eta egiaztapen-prozesuetako arauketari heltzea, bai 3/2005 Legearen garapenaren esparruan, bai *Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean* egin behar den arau-garapenaren zati gisa.